

»o *MJ*, U I M I I C

Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea.

Durango uriari argitasun barria etorri jako oraintsu: uri onetako seme entsutetsu batena ei da inoz euskeraz idatzi dan prosazko zatirik luzeena. Oraintsurarte or egon da lo, antxinako paper zarren artean galduta, arik eta aleman batek illunpetik atera ta argitara ekarri dauan arte, Antzifiako gauzen eta gizonen barri billa dabilzan jakitun eta aztertzaile bati, Bataillon frantsesari omenaldizko liburu bat eskini nai izan deutse, eta an agertu dau aleman orrek euskerazko testo zar ori, 1537koa, Etxepareren liburu ospetsua baino zortzi urte lenago idatzia. Mexikoko lenengo Gotzain izan zan Aita Zumarraga frantsizkotarrarena da, bere senide bati Mexikotik euskeraz egin eutsan karta baten datorrena. Durangoko semea dogu Zumarraga Gotzaifia, eta an Durangon umetan ikasi eban euskerea daukagu or, XVgarren gizaldiko euskera zarra, bizi bizerik. Ez da gauza utsa. Tovar idazle eta irakasle andiak emon dau gure artean alemanak aurkitutako karta orren barri eta laster emongo ei deusku guri be euskerazko puska zar ori irakurteko erea. Oram artean, esaera labur bat edo beste, puska txikiak, besterik ez dogu euki euskera zarrekorik. Emendik aurrera zeozer osoagorik ezagutzeko aukerea izango ei dogu. Eta Bizkaiko euskera zarrean.

Egia esan, praideen artetik, edo eleizgizonen artetik, idazle bat agertzea ez da ain gauza andia ez arritzekoa. Eta zeinbat olango paper zar ez ete dago or batzerretan galduta? Arritze-koagoa dana zera da: eleizgizon ez diranen artetik euskal-idazleak agertzea, kristinau utsak diranen artetik euskal-idazleak urtetea. Durangok badau olangorik be, kristifiau uts izan arren, euskera landu eta euskeraz idatzi ebanik. Bat ekarri nai dogu gaur KARMEL aldizkari onen irakurleen aurrera: Diego Lorenzo Urkizu edo Urkiza. Liburutxo bi atera zituen: bata erderaz, eta bestea euskeraz. Uribarriko Ama Birjifiari egiiiiko Bederatziurrena da erderazkoa, eta bertan Urkizu, euskaldunena ez dan izkuntzan idatzi daua-la-ta, euskaldunai parka-eskeka dago, eta parkamen ori irabaztearren, euskerazko bertso batzuk sartzen ditu azkenengo orrialdeetan, zortzikotan egifiak, Uribarriko Amari kantetako.

Bigarren liburutxoa euskera utsezkoa dau: «Liburu/ Birjina Santisimien / Errosario Santuena». Irufian argitaratua da, 1737-garren urtean, 87 orrialdedun liburutxoa. Nork idatzia? «Durangoko Uriko Deboto batek» egiiia dala difio. Tabirako Errosarioko Amari egiten deutsan eskintzan «Zeruko da lurreko Erregina andiaren / ... esklaborik txikarrena» egiten dau bere izena be salatu dau: D. L. U. Izurtzako seme dogun Berriotxoa Anaiak, ango ingurutako bazter eta gizonen aztertzaille zoliak, or argi ikusi dau beste erderazko liburua atera ebanaren izena: Diego Lorenzo Urkizu. Gauza au naiko argi dagoala uste dot. Baina- nok jakin dau, ez Urkizu orren ez bere liburu orren barririk? .-..\*..

Beste durangar batek, Ramon Etxezarreta jaunak, orain eun urte, ondo gordeta eukan bere liburuen artean Urkizuren ori be; baina gero, atzerritar euskalzaleen eskuetara joan zan eta gaur Ipar-amerikan Chicago-ko Biblioteka nausian ei dauke. Munduan ez da gaur beste lorratzik aurkitzen. Berriotxoa Anaiak Chicagotik fotokopia bat lortu eban, eta nik andik beste bat atera neuretzat. Adiskide batzuei itxita, bata eta bestea galdu ziran. Zorionez beste kopia bat etorri da nire eskuetara, eta nire eskuetatik beste ikasle eta euskalzale batzuen eskuetara. Eta gaur, KARMEL.onen irakurleentzat ekarri nai dot liburuaren zatirik, nire eretxiz, jakingarriena, bertsozkoa.

Liburuak iru zati daukazala esan geinke: lenengoak Errosarioa zer dan, eta misterio baktotxean zer gogoratu eta zer ikasi bear dogun azaltzen deusku; bigarrenak, Errosarioan esaten diran otoitzak, asierako damu-otoitzetik asita, misterio baktotxaren eskintza, eta abar; misterioak, barriz, irudiz apaindurik datoz. Irugarren zatia da bertsozkoa, misterio baktotxean kantetako bertsoak osotzen dabena.

Urrinetik igarten jako lenengo zati biak erderazko liburuen batetik euskerara aldatuak dituela. Aldi atan, antza, olango liburutzak, Errosario zelan ondoen erreza irakastekoak, askotxo zabaldu ziran. Nire eskuetara be eldu da bat, Gazteizen egin bera, eta misterio baktotxa eskintzeko ototza bietan, Durangoko euskerazkoan eta Gazteizko erderazkoan, ari bardin-bardifietik doa. Bardin jazoten da Kardaberaz Aitak geroago bizkaitarrentzat atara eban liburtxokoagaz be. Guztiak iturri bereko eskintz-ototzak dira: Kardaberaz aitarena euskera garbiagoan dago, baina ototz berberak dira bata eta bestea. Lenengo zati biak idazkeran, Durangoko «Deboto» onek erderazko liburuen bat aurrean izan ebala argi dago. Baina irugarren zatia, bertsozkoa, durangarrak bere-berea dau, euskal-usain utsezkoa da, eta ez inongo erderatik artua. Eta orregaitik, ain zuzen, guretzat jakingarriagoa, irakurgarriagoa.

Beste zertxo baten be ikusten dogu, orraitio gure durangarra erderazko liburuen baten atzetik dabillala: bere izentzat «deboto bat» dala ipintean. Gazteizko erderazkoak be bardin dakar: «Sacalo a luz un devoto». Are geiago; Bizkaian bertan argitaratu zan beste liburutzak bat asmo bardifiaz, Errosarioa errezetan irakasteko. Durangarrena baiiiio geroagoko da: 1780-koa. Bermeon, Frantziskotarren Irugarren Ordenakoendako atera eban au be, nok eta «Deboto» batek. Guztiak bide batetik dabiltz, izen edo izen-orde berbera daroe.

Errosario-bertsoak ateraten be ez dogu Durangoko Andramarizale au bakarra izan bere gizaldian. Afiibarro Aitaren *Eskuliburuan* irakurten dogunez beste batzuk be zabaldu ziran. Liburu orretan irakurten ditugu, 1808-ko argitalditik asi ta beste ta beste guztietan, lenengotik urrengoetara Afiibarro beraren ikututzak batzuekaz. Afiibarrok autortzen dauanez, bertso orrek kantetako oiturea erri askotan zabaldua ei egoan. Noztik asita?

Bermeoko Debotoaren liburua ez dot nik ezautzen; baina nire susmoa da Afiibarrok bere liburuan sartu dituenak Bermeokoak dirala, Frantziskotarren Irugarren Ordenakoak zabalduta. Durangarrenak baino zori ohea izan dabe. Euskalki guztietara aldatuta, Lapurdikora be bai, Euskalerra guztira eldu dira, euren musika ta guzti. : .

Baina Durangokoak ez ziran gelditu bape zabaldu barik, Urkizu «Deboto» orren liburua ez da osorik berraro argitaratu, baina aren bertsoak bai. Non? Bartoiome Oiaetxearen Dotrina zarraren argitaldi baten baino geiagotan. Alan, beintzat, 1814 eta 1864-ko argitaldietan. Utsen bat edo beste badauke. Uskeritxoren bat be aldatu dautse fonetikaren aldetik: fedian, barrija, azija, eta olan. Bestela, 1737-koak, Urkizurenak berberak dira.

Jakingarria da Urkizuk bere bertsoai ipifii deuten berbaurretxoak: «Onerik aurrera kendu daiezan kanta loi da desonetak, ifintzen dira berso edo koplak ederrak, zeintzuk kantauko dituez debozino da meditazinoiagaz, Errosarioa kantetan danean, nai osterantzeko okasino guztietan...»

Oiaetxearen Dotriflan beste onetara dator: «Ama Birjina Errosariokoaren kanta eder au emoten da emen, mutilxubak eskolarik etxera datozean, ganaduben zain soluan dagozean, eta aen billa basian dabiltean kantu daijen. Uxala beste kanta loi asko arima galtzaigarriak onan kendu al baleitez. Alan izan deilla bada, arren, bai.»

Bertsook zortziko nausitan dagoz. Zortziko nausiaren neurria, gaur, erabillienetakoa da bertsolarien agotan. Lenago ez zan, antza, olan. Zortziko orren neurriak ez dau, beintzat, euskal-idazle zarren bertsoetan lorratz andirik itxi. Nik lorratzxo bat aurkitu uste izan neban Etxepare zarraren bertsoetan: «Bertzek bertzerik gogoan eta nik Andredona / Maria. Baina bestek... besterik uste dabela esan bearko, ez dagoela or zortziko nausiaren lorratzik. Geroago (noz?) or daukagu Egun Berreko Alargunarena: «Goizian goizik jeiki ninduzun, / ezkondu nintzan / goizian». Emeretzigarren gizaldian Eleizara sartuta dago neurri ori: «Damut dot, Jauna, / biotz guztirik / Zu naitz gabetu / izana»... • • "

Urkizuk neurri orretan egin zltuen bereak (Uribarriko Andra Mariari egifiak be bai, antza «octavas» esaten deutesen ezker). Neurri oni durangarrak aparteko legea deutsalala esan geinke, eta naiko ondo darabil geien baten. Noizik bein ez dau ondo jagoten bostgarren silabaren ondoko etena, -baifia oso gixitan da.

Gure literatura urrian ez dogu aitzu bearco Durangoko idazle begiko au. Oraintsu agertu da plazara Bizkaiko beste idazle zar bat, Gernika-aldekoa .doguna:. Gandara, Gabon-kantatxo batzuk egin zituela-ta. Urkizu a baino lenagokoa dogu.

Emen ditu irakurleak aren amabost Zortzikoak, Errosarioko amabost misterioai dagokiezariak. Oraingo ortografiara aldatu ditugu. Urkizuk badau bere. ortografian bitxikeritxo bat: *andi-ia*, *izerdiia*, *ikaragarriia*, eta olan idazten dau. Emen bigarren *i* orren orde z y jarri deutesagu: *andiya*, *izediya* eta olan. Olatxearen Dotrinan *j* ezarri eutsen lez: *andiya* eta abar. *Eta* beti *da* egiten dau, eta olan itxi dogu, 1737-ko liburuan lez.

Durangoko idazle oni gure literaturatxoan lekutxo zor jako, eta beste idazle zar askoren artean ez dauka zertan lots aturik, ez kanpoko azalez, ez barruko mamiz. Irakurlea nire eretxi-izango dalakoan nago.

Eta orain irakurleari azken-berbatxo: Orain urte ta erdi inguru, 1979n, KARMEL gnen. irugarren zenbakian emon genduan Eusebio Maria Azkue idazlearen *Euzkadia*, artean argitaratu bakoa. Asi-asierako bertsoetan uts andi bat ekarren. Urrengo baten zuzentzeko, agindu genduan, ba.ina alpe.rrik;. ez euskuen jaramonik egin. Oraingo onetan ia zori ohea daukagun. Ona emen zelan irakurri bear diran lenengo lerro biak: Beti euki dau ta dauko Bizkaiak Musa bat / eta bere barria neuk lenengoz dakat.

L.A,